

KARTEL TXAPELKETA

XIII. ARABAKO FANDANGO ETA ARIN-ARIN KOREOGRAFIA TXAPELKETA

Arabako Dantzarien Biltzarrak XIII. ARABAKO FANDANGO ETA ARIN-ARIN KOREOGRAFIA TXAPELKETAren kartela egiteko lehiaketaren deialdia luzatzen du, baldintzak hauek izanik:

1. Xedea eta helburua

- Deialdiaren helburua XIII. ARABAKO FANDANGO ETA ARIN-ARIN KOREOGRAFIA TXAPELKETA iragartzeko kartelaren diseinua aukeratzea da, kolorez eta teknika librez egina.
- Sorkuntza bultzatzea eta artisten parte-hartzea sustatzea du helburu, baita festa hau ahalik eta gehien hedatzen lagunduko duen diseinua saritzea ere.

2. Emateko prozedura

- Saria emateko prozedura jendarteko lehiakortasunaren bitartekoa da. Saria emateko, aurkeztutako lanak alderatuko dira, haien arteko erlazioa ezartzeko, izendatutako epaimahaiak egindako balorazioaren arabera.

3. Sariaren zenbatekoa

- Saria 300,00€-koa izango da, hartu-agiri moduan.

4. Parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak

- Adin nagusiko edozein pertsona fisikok parte har dezake, bere nazionalitatea, sexua edo bizilekua edozein dela ere.
- Kanpo geratzen dira ekonomia- eta/edo merkataritza- jardueraren bat egiten duten enpresak eta pertsona fisiko eta juridikoak.

5. Hautagaitzen ezaugarriak

- Erabili beharreko teknika librea izango da: argazkia, marrazkia, collage, etab. Ezinbesteko baldintza izango da proposatutako kartela argitaratu gabea izatea, hau da, aurretik beste lehiaketa batean ez aurkeztua eta ez saritua izatea.
- Hautagaiaren identifikazioa ahalbidetzen duen edozein sinadura edo marka digital aurkitzen bada, automatikoki lehiaketatik kanpo geratuko litzateke.
- Kartelaren tamaina 420 x 297 mm-koa (DIN A3), bertikalean eta pdf formatuan izango da. CMYK, 300 ppp-an (inprenta) eta RGB, 72 ppp-an (digitala). Bestalde, kartelaren beheko partean bost zentimetroko tartea utzi behar da dagozkion logoak txertatzeko (antolatzailea, babesleak eta laguntzaileak).
- Baldintza hauekin bat ez datozen lanak ez dira lehiaketan onartuko.
- Hurrengo testua kartelean agertu beharko da:

XIII. ARABAKO FANDANGO ETA ARIN-ARIN KOREOGRAFIA TXAPELKETA

Abenduak 14 Diciembre

19:00h

Teatro Federico García Lorca Antzokia (Centro Cívico Lakua/Lakua Gizarte Etxea)



ARABAKO
DANTZARIEN
BILTZARRA

ARABAKO DANTZARIEN BILTZARRA

ARABAKO.COM

6. Hautagaitzen aurkezpena

- a. Lanak posta elektronikoz bidali beharko dira: adb@arabako.com, gaian "XIII kartel lehiaketa" adieraziz, eta mezuan egilearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta NANaren fotokopia erantsiz.
- b. Nahi adina kartel aurkez daitezke.

7. Hautagaitzak aurkezteko epea

- a. Hautagaitzak aurkezteko epea oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2024ko azaroaren 15ean bukatuko da (biak barne).

8. Bateriazintasuna beste sari batzuekin

- a. Lehiaketa honetara ezin izango da aurkeztu aurretik beste edozein lehiaketa edo lehiaketatan aurkeztu eta saritutako kartelik.

9. Bozketak

- a. Epaimahaia Arabako Dantzarien Biltzarrean (ADB) federatutako taldeak izango dira.
- b. 2024ko azaroaren 18an, ADBko talde bakoitzak hiru lan onenak aukeratuko ditu, eta boto gehien dituen kartela izango da irabazlea.
Finalisten artean berdinketarik balego, bigarren bozketa bat egingo litzateke egun baliodun bateko epean. Eta horrela hurrenez hurren irabazle bakarria egon arte.
- c. Azaroaren 20an jakinaraziko zaio lehiaketa irabazteko proposatutako pertsonari, eta Facebooken eta www.arabako.com webgunean argitaratuko da.
- d. Saria banku-transferentzia bidez emango da.
- e. Azken erabakia ADBrena izango da eta apelaezina izango da.
- f. Kartel irabazlea ADBren jabetzakoa izango da, eta hark beretzat gordeko ditu kartela inprimatzeko, argitaratzeko eta zabaltzeko eskubideak. Halaber, gainerako lehiakideek eskubideak laga beharko dituzte sare sozialetan argitaratzeko.
- g. Lehiaketara aurkezteak betekizun horiek erabat onartzea berekin dakar.
- h. ADBk askatasuna izango du lehiaketa esleitu gabe uzteko, baldin eta aurkeztutako lanen artean sariaren esleipendun izateko adinako kalitaterik ez balego.